# Bizimodu independentea errazteko laguntza ekonomikoak

**Fitxa interneten bistaratu**

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Autonomia sustatzea du helburu. Laguntza pertsonala kontratatzeko kostua estaltzen laguntzen zaio, 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, mendekotasunaren prestazio ekonomikoak arautzen dituenak, arautzen duen Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa jasotzeko eskubidea izanik. Zehazki, xede hauetara bideratzen da:

- Komunitatean sartzen laguntzea eta ez isolatzea.
- Partaidetza osoa ahalbidetzea bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntza, lanean eta bizitza kulturalean, besteen baldintza beretan.
- Ostatu edo egoitza zerbitzu batean ez sartzea.
- Emantzipazio prozesuak erraztea.

### Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Bizitzaren hautu bat da mendekotasun edo desgaitasun egoera dauden pertsonentzat; alegia, modu independentean bizitzearen alde egitea, bakarrik edo beren familia unitatea sortuz, komunitate ingurune batean.

### Baldintzak

- Eskaera gauzatzean 18 eta 64 urte bitartean izatea. Laguntza jasotzen duten titularrei ez zaie 64 urteko adin muga aplikatu.
- Desgaitasuna duen pertsona dela aitortua izatea.
- Mendekotasun egoeran egotea (1. graduko edo gehiagoko MBBa; edo hirugarren baten laguntza behar izatea, BLB, 15 puntukoa edo gehiagokoa).
- Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eskuratuta izatea.
- Etxebizitza egokia edukitzea.
- Laguntza pertsonaleko azpiegitura nahikoa edukitzea.
- Bideragarritzat joko den bizitza independenterako proiektua aurkeztea.
- Lan kontratua duela, Gizarte Segurantzan alta emana dagoela eta laguntza pertsonala ematen dutenen prestakuntza maila akreditatzea, programan ematen duen denbora guztian zehar.
- Udalaren egokitasuneko gizarte txostena.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Eredu ofizialaren eskaera, behar bezala beteta, udaletako gizarte zerbitzuetako departamentuetan eskuratu daitekeena.

### Aurkeztu beharreko agiriak

» NA » Erroldatze ziurtagiria

- NAN
- Errolda ziurtagiria
- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa
- Mendekotasun egoeran egotea edo 15 puntuko edo gehiagoko desgaitasun bat edukitzea, hirugarren baten laguntza eskatzen duena (BLB).
- Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eskatuta izatea.
- Laguntzaile pertsonalaren dokumentazioa, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoan aurkeztu ez bada.
- Bizimodu independentearen proiektua.
- Udalaren gizarte txostena

### Eskaera moduak

» Presentziala

**Zuzeneko arretarako bulegoak**

1. Udaletako oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

## EBAZPENA

**Ebazteko gehienezko epea**

6 hilabete.

**Administrazioaren isiltasuna** Ezestekoa

**Honen bidez jakinarazten da**

» Ohiko postaz

## ARAUDIA

• 2008ko abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretua, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituena. (GAO 251 zk. 2008ko abenduaren 31koa )

## INFORMAZIO OSAGARRIA

**Informazio gehigarria**

Laguntza hau osagarria da xede bererako edozein administrazio publikok emandako edozein laguntzarekin (bereziki baliaezintasun handiko osagarria, % 75eko desgaitasuna edo gehiago duen eta ardurapean dagoen 18 urtetik gorako seme edo alabaren diru esleipena, balioezintasun pentsioko hirugarren baten laguntza premia edo subsidioa hirugarren baten laguntzarengatik, EGL).